

Omenaldiak

2017an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Radio Bilbaoren 'Bikaintasun Saria' eman zioten Luis Baraiazarrari

Euskaltzain ohorezkoak "euskararen ikerketa eta hedapenean egindako lan esker-ga" nabarmendu zuten Radio Bilbaoko arduradunek. Radio Bilbaok martxoaren 6an egin zion gorazarrea ez zen lehena izan, 2016ko abenduan bere jaioterrian jaso baitzuen merezitako omenaldia Baraiazarrak, herri osoak eskaini ziona. Beste gauza askoren artean, meñakarrek karmeldarraren izena jarri zioten herriko liburutegiari: Luis Baraiazarra Liburutegia. Karmeldarrarekin batera Fito musikariak, Ana Blanco kazetariak, Gestamp enpresak, emakumezkoen Athletic taldeak, Arkaitz Carracedo ikerlariak, Blanca Estrella Ruizek (Clara Campoamor elkarteko presidentek), Guggenheim Bilbao Museoak eta Aspanovas-ek jaso zuten gorazarrea.

Charritton eta Minaberri omendu zituzten Sarako Biltzarrean

Sarako Idazleen biltzarraren 34. edizioaren karira, omenaldi bateratua egin zitzaizen Piarres Charritton euskaltzain emerituari, Marie Jeanne Minaberry ohorezko euskaltzainari eta Hasier Etxeberria kazetariari.

Sant Jordi Gurutzea eman zioten Joan Martí i Castell ohorezko euskaltzainari

Kataluniako Gobernuak 2017ko Sant Jordi Gurutzeak banatu zituen, eta horietako bat Joan Martí i Castell filologoarentzat izan zen. Golardoa 1981ean ezarri zuten Gobernuak, Kataluniaren alde egin dutenen esfortzuak saritu nahian. Horrez gain, Bartzelonako Reial Acadèmia de Bones Lletres-eko kide izendatu zuten Martí i Castell.

Pozik agertu zen katedraduna jasotako onespen eta sariekin. "Ohore izugarria da niretzat Reial Acadèmia de Bones Lletres-eko partaide izatea -aitortu zion *Plazaberriri* filologoak, bide batez esanda, aspaldikotasun nabarmena duen korporazioa, filologia eta historia ikertzen ahalegintzen dena. Zentzu honetan, Antoni M. Badia i Margarit-en hutsunea beteko dut; Badia nire maisu nagusia izan da, eta, neurri handi batean, berari zor diot nire hizkuntzalari eta filologo formakuntza. Azkenik, izugarrizko poza daukat, nire jardun akademikoak hiru erakunde handi eta ospetsu besarkatzen dituelako jada: Euskaltzaindia, Institut d'Estudis Catalans, eta, orain, esandako RABLB. Nire nahia da gaur egungo gizartean ezagutza humanistikoak hedatzea, justu orain, hain beharrezkoak direnean eta XXI. mende honek hain kasu gutxi egiten dienean".

Andres Urrutia euskaltzainburuak nabarmendu zuen Martí i Castell-en "katalan hizkuntza eta Kataluniako nortasuna bermatzearen aldeko gogoia eta asmoa", baina ez hori bakarrik. "Formazio eta jakituria apartekoa bada ere, bere jarrera da aintzat hartzekoa".

Joan Mari Irigoien omendu dute Beasainen

Goierriko Lehen Irakurle Taldeen Topaketa antolatu zuten, ekainaren 17an, Beasaingo Dolarea Parkean. Joan Mari Irigoien *Consummatum Est* (Elkar, 1993) liburua izan zuten mintzagai eta ondoren omenaldia egin zioten Alzako idazleari, euskal literaturari egin dion eta egiten ari zaion ekarpena eskertzeko.

Azpillaga omendu zuten Xalbador Egunean

Urtero legez eta 2004tik, Xalbador Eguna ospatzen da Urepelen (Nafarroa Beherea). Bertsolari, ohorezko euskaltzain eta artzainaren jarduna eta bizitza gogoratzeko antolatzen du Deiadarra taldeak egitasmoa. Honela azaltzen dute beraiek: "Gure nortasuna eta Xalbadorrek utzi zaukun mezua bizirik atxikitzea nahi dugu Euskal Herri osoan". Izan ere, elkarte bera Xalbadorren "Ama Euskal Herria" bertsoen eraginez sortu zen.

Xalbador gogoratzear gain, berarekin harremana edo zerikusia izan zuten bertsolariak ere omentzen dituzte Urepeleko jaialdi ederrean. 2017an, Jon Azpillaga aukeratu zuten, "bertsolaritzaren eta euskal kulturaren alde" eginiko lanagatik.

2017ko Liber Press Literatura Saria jaso zuen Bernardo Atxagak

Elkartasuna sustatzeko jaio ziren 1999an Liber Press sariak, Gironako Diputazioaren eskutik, eta 2017an Bernardo Atxaga idazle eta euskaltzainari egokitu zitzaion horietako bat, bere bizi guztiko obragatik, hain zuzen, "sentiberatasunez, originaltasunez eta aberastasunez betetako obragatik", epaileek azpimarratu zuten moduan. Atxagaren ibilbide literario oparoa saritu nahi izan zuten Gironan, beraien iritziz, Asteasuko idazleak "memoria kolektiboan insisitzen duelako, tolerantzian, gizatasunean eta onberatasunean bezainbat". Atxagarekin batera, beste hauek jaso zuten saria: Jaume Capdevila i Herrero marrazkilariak; Femen taldeak; Paolo Bianchini zinema zuzendariak; eta Maria Farantouri abeslari eta ekintzaile greziarrak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Abbadia Saria, Ibon Sarasolarentzat

Ibon Sarasola hizkuntzalari eta euskaltzainak jaso zuen 2017ko Abbadia Saria. Aho batez hautatu zuten, "euskara batuaren sorrera bultzatu zuen taldearen oinordeko" dela azpimarratuz. Horrez gain, epaimahaikoek nabarmendu zuten "euskari egin dion ekarpena, bereziki hiztegi gintza eta lexikografiaren ikuspegitik".

Joxe Mari Iriondo ohorezko euskaltzaina omendu zuen Noticias taldeak

Ortzadar Saria eman zioten "kultur sorkuntzan eta euskararen zabalkunde" egindako ahaleginengatik. Noticias Taldeko arduradunek azpimarratu zuten "Iriondo beti izan dela komunikatzaile konprometitua", eta gogoratu dute Urrestillako kazetariak euskal komunikabideen hastapenetan eginiko ahalegin eskerga, batez ere "euskararen giza pertzepzio positiboa berreskuratzen" eginiko esfortzua.